

AZTERKETA PRESTATZEKO ARIKETAK

- 1** Bi zenbakiren arteko batura 20 da. Handienari txikienaren bikoitza kentzen badiogu, 14 gelditzen zaigu. Zein dira zenbaki horiek?
- 2** Irratiko lehiaketa batean erantzun zuzen bakoitzetik 5 puntu ematen dizkizute, eta gaizki erantzuten baduzu, 3 kentzen dizkizute. Lehiakide batek 24 galdera erantzun zituen eta 48 puntu lortu zituen. Zenbat erantzun zuzen eta zenbat oker eman zituen?
- 3** Baserri batean astoak eta oiloak daude. Guztira 120 begi eta 140 hanka badituzte, zenbat asto eta zenbat oilo dira?
- 4** 1 eta 2 euroko 46 txanpon ditut, eta guztira 76 € dira. Zenbat txanpon daukat mota bakoitzetik?
- 5** Amaiak 3 ogitarteko eta 2 freskagarriren truke 15€ ordaindu ditu, eta Unaik 5 ogitarteko eta freskagarri baten truke 21,5€ ordaindu du. Zenbat balio du freskagarriak? Zenbat ogitartekoak?
- 6** Baserritar batek zaldiak eta ostrukak ditu, guztira 8 dira. Denen artean 26 hanka dituzte. Zenbat ostruka eta zenbat zaldi dira?
- 7** Bi zenbakiren batura 79 da eta kendura 5. Zein dira zenbaki horiek?
- 8** Bi zenbakiren arteko diferentzia 15 da. Biei 2 gehituz, handiena txikienaren bikoitza bihurtzen da. Aurki itzazu bi zenbaki horiek.
- 9** Mutil batek bere amak baino 24 urte gutxiago ditu eta amaren adina semearen adinaren hirukoitza da. Zenbat urte ditu bakoitzak?